

GAU BELTZA. Piezen letrak

ERRANAK / ESAPIDEAK

- Kakontzia!
- Beldurri hutsa
- Katuak uxatzeko: zapi!
- Izena duenak izana du

FORMULAK

Gau Beltzean eskean joateko:

- Ziria ala saria!
- Xanduli, manduli, kikirriki, eman goxokiak guri!

Gauza arraroren bat sumatzean:

- Onezkoa bahaiz, mintza hadi, gaixtozkoa bahaiz, honda hadi!

IPUINAK

Sorgina tximiniatik behera (Azpituluetakoa)

Emakumea bere etxean zegoen eta denak lotara joan ziren. Bera sutondoan zegoen tximinia aurrean eta, bat-batean sorgina agertu zitzaion tximiniatik behera. Pra! Daaa!!!

- Maria! - esan zion- Karran gantx! Karran gantx!

Badakizu zer den "gantx"? Koipea edo urina, e? Lehen sukaldean erabiltzen zen, baina sorginek gorputzean igurtzi eta hegan egiteko erabiltzen zuten.

K- A...

M- Bai.

- Karran gantx! Karran gantx, Maria!

Mariak beste erremediorik ez zeukan eta koipea, koipe pixka bat eman zion. Orduan sorginak hartu eta xuuuu! ihes egin zuen. Eta gauero berdin, gauero berdin! Emakumea ja nazkatuta zegoen eta hurrengo egunean esan zion senarrari:

- Ai, ama! Ez dakit zer egin sorgin honekin! Gauero etortzen zait, e... niri, zirikatzerara.

Senarrak esan zion:

- Lasai, nik konponduko dut.

Emakumez jantzi zen eta gau hartan bera jarri zen sutondoan tximiniaren ondoan, haria egiten. Baina bera ez zen hain ona, e? haria egiten, eta, fin-fin egin beharrean, bada korapiloz betea eta lodi-lodia atera zitzaion dena.

Bat-batean sorgina iritsi zen fijxaa!!!

- Ekarran gantx! A! Ba, ba, baina, atzo firin-firin eta gaur pordoka-pordoka? -hariagatik esaten zion- Atzo firin-firin eta gaur pordoka-pordoka? Nor haiz hi?

Eta gizonak esan zion, burua jaso gabe:

- Ni nor nire buru.
- Aaaa! - sorginak- Aaaa! Karran gantx! Karran gantx!

Gizonak, bai, koipea prest zeukan, baina bero-bero-bero-bero. Eta, hartu eta txaaa! sorginari gaineratik bota zion. Plasta!

Sorgina:

- Buaaaaa!!!! Bidabija fiuuuu!!!

Zitzu bizian atera zen tximiniatik zerurantz eta garrasika:

- Aaaaaa!!!

Sorgin guztiak deitu zituen. Sorginak etorritakoan, esan zioten:

- Baina zer gertatu zaizu? Nork egin dizu hau?
- Hau? Nor nire buruk! Nor nire buruk!

Noski, bere izena ez zekitenez, ezin zoten ezer egin.

(Gidoirako idatzitakoa)

Gauero bezala, etxeko guztiak lotara joatean, emakume bat sutondoan gelditu da haria egiten. Arratsean tximiniatik behera sorgina jaitsi zaio eta jatekoa eskatu dio:

- Maria, karran gantx!

Gantx hori gantza da, urina edo koipea, eta frijitzeko erabiltzen zen orduan.

Emakumeak, nazkatua sorginarekin, ez daki zer egin eta etxekoei zer gertatzen den kontatu die. Orduan senarrak erran du:

- Hago, hago. Ni jarriko naun.

Gaua iristean, emakumearen arropak jantzi eta haria egiten hasi da, baina ez dakienez haria ongi egiten, hari lodia eta korapiloz betea egiten ari da. Bat-batean, tximinian zarata sumatu eta handik gutxira sorgina agertu zaio. Orduan, sorginak nabaritu du zerbait ez dagoela ongi eta hau erran dio:

- Atzo firin-firin (hari fin-fina) eta gaur pordoka-pordoka (korapiloz betea). Nor haiz hi?

Eta:

- Ni nor nire buru -gizonak-.

Eta berriz galde egin dio sorginak:

- Atzo firin-firin eta gaur pordoka-pordoka, hi nor haiz?

Eta:

- Ni nor nire buru.

Sorgina haserre dago ez diolako nor den esaten eta orduan esan dio:

- Karran gantx! Karran gantx!

Sorginek behar izaten dute urina gorputzean eman eta hegaka joateko, horregatik eskatzen ari zaio gantza.

- Gantxa nahi dun? To gantx!

Eta, bero-bero dagoen urina ra! bota dio eta:

- Ai! Ai! Ai! Ai!

Sorgina oihuka joan da tximiniatik gora eta gainerako sorginek galdetu diote:

- Zer dun? Nork egin din? Nork egin din?

Eta:

- Nor bere buruk!

Orduan beste sorginek erantzun diote:

- Nor bere buruk egin badin, nor zer jakin? Nork egin duen?

Sorginek ezin izan diote gizonari ezer egin, ez dakitelako bere izena.

Sorgina katu bihurtu

Gau batean mutil bati katu agertu zitzaion eta garai hartan denek makila ibiltzen zutenez, mutikoak hau erran zion: "Onezkoa bahaiz, mintza hadi; gaixtozkoa bahaiz, honda hadi!" eta katu jo zuen. Pak! Miau!! Katuak berriz jotzeko eskatu zion, baina mutikoak ez zion kasurik egin, bazekielako agertu zen hori sorgina katu forman izanez gero, bi aldiz jota, ongi jarriko zela. Eta sorginei behin edo hirutan jo behar zaie, ez bitan. Eta, badakizu, Mattin, zer gertatu zen mutiko hori bere etxera iristean? Bere izeba Marigraxik ikzugarrizko kolpea zuela buruan. Nonbait, bere izeba sorgina izan zen katu itxurarekin agertu zitzaiona.

KANTUAK

San Simon eta San Juda

San Simon eta San Juda,
joan zen uda eta negua heldu da.
Ez baletor hobe, bizi gara pobre
inguru latz honetan,
ez gara hain onak benetan.

Ez dugu zaldirik, ez gara zaldunak,
ez dugu abererik, ez gara aberatsak.

Euskara guk dugu,
gu gara euskaldunak.

Euskara guk dugu,
gu gara euskaldunak.

Baga, biga

Baga, biga, higa, laga, boga, sega, zai, zoi, bele, arma, tiro, pun! Baga, biga, higa, laga, boga, sega, zai, zoi, bele, arma, tiro, pun! Txirristi, mirristi, gerrena, plau, olio zopa, kikiri salda, urrup edan edo klik! IKIMILIKILIKLIK!!!!